

Donostia, 2020ko azaroaren 6a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### MOZIO ARRUNTA, HIRI GARRAIOARI BURUZKOA

Marta Huarte Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, HIRI GARRAIOAN EZARRI BEHARREKO NEURRIEI buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, UDALBATZAN azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Egungo egoera gero eta kezagarriagoa denez, eta, LABIk azaroaren 5ean hartutako erabakiarekin bat, garraio publikoa, beranduenez, 22:30ean irtengo dela jakinda, –eta ez dugu ahaztu behar etxean konfinatzeko aukera ere hor dagoela–, oso garrantzitsua iruditzen zaigu D-Buseko eta Lurraldebusen hiriko autobusetan edukiera % 50era jaitea. Zerbitzuen maiztasuna ere handitu egin behar da, puntako orduetan indartuz.

Proposamen horrek Eusko Jaurlaritzaren gomendioen babesia dauka, eta bere baitan biltzen ditu Osasun Ministerioak COVID-19aren aurkako murrizketa arrunten inguruan autonomia-erkidego guztiei emandako oharra. Esate baterako, han jasotako neurrietako bat da arrisku ertaineko 2. alerta-mailan, garraio publikoko ordutegien maiztasuna handitzea, pilaketak saihesteko, eta edukiera % 60ra mugatzea. Zirriborro horren arabera, ordutegien maiztasuna handitu behar da, garraio publikoan pilaketarik gerta ez dadin, eta edukiera % 60ra edo %30era mugatu, alerta-mailaren arabera.

Gaur egun, alerta-maila dela eta, garraio publikoaren edukiera % 30era jaitsi beharko litzateke. Beraz, proposatzen dugun murrizketa Osasun Ministerioak gomendatutakoa baino txikiagoa da, eta ordutegien maiztasuna puntako orduetan handitzea jotzen dugu ezinbestekotzat, hori guztia pilaketak saihesteko.

Azaroaren 4an, prentsan irakurri dugunez, Goia alkateak berak eman ditu hiriko autobusei buruzko edukiera-datuak, eta, hark esan bezala, edukiera ez da inoiz % 75 baino altuagoa izaten. Datu horiek, duten balioa dutela, oso kezagarriak dira, ez baitituzte errespetatzen gomendatutako gehieneko mugak. Alkateak ez du ezer adierazi hiriko autobusen ordutegi-maiztasuna handitzeari buruz; bakarrik esan du, oro har, lagunduko lukeela eskola eta lan jarduerak mailakatuak izaten.

Gure ustez, arlo honetan ez da erantzukizunez jokutzen ari, eta, beraz, hertsatuki eskatzen dugu gomendatutako edukiera-murrizketak eta ordutegi-handitzeak betetzeko.

Hori dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu:

#### MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta garraioaren arloan eskumenak dituzten gainerako administrazio publikoei azkar garatu ditzatela behar diren tresna guztiak D-Buseko eta Lurredebuseko flota guztietan bidaiarien % 50eko edukiera-muga ezartzeko .
2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta garraioaren arloan eskumenak dituzten gainerako administrazio publikoei neurri egokiak garatu eta ezarri ditzatela Dbuseko eta Lurredebuseko autobusen zerbitzuen

maiztasuna handitze aldera, batez ere puntako orduetan, egungo alarma-egoerak irauten duen bitartean pilaketak saihesteko.

Izpta.: Marta Huarte

*Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia*